Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

2017 UZT. JUL. 14

| SARRERA / ENTRADA | IRTEERA / SALIDA |
|---|---|
| ........../.......... | 130 / 67 |

Idazkari Nagusia
Secretario General

Giza Eskubideak
Imanol Telleria

Jaun hori:

Honekin batera Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak 2017ko ekainaren 27ko bilkuran, onartutako Erakunde Adierazpenari buruzko egiaztagiri hau bidali dizut, jarraian zehazten den gaiaren ingurukoa dena:

**ERAKUNDE ADIERAZPENA, EH BILDU TALDEAK AURKEZTUA, EL SALVADORREN ALDEKO EKINTZA GLOBALA ETA 4 KAUSEN ALDEKOA.**

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazi dizut.

Donostian, 2017ko uztailren 14ean.

Estimado Sr.:

Adjunto remito certificación relativa a la Declaración Institucional aprobada, por la Junta de Portavoces del Ayuntamiento de San Sebastián el pasado 27 de junio de 2017, referida a:

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU, SOBRE ACCIÓN GLOBAL POR EL SALVADOR Y APOYO A LAS 4 CAUSALES.**

Lo que le comunico a los efectos procedentes.

En San Sebastián, a 14 de julio de 2017.

**DONOSTIAKO UDALEKO BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA / EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia

**Iñaki TXINTXURRETA PERDIGUERO**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6158n 2003-04

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2017ko ekainaren 27an izandako ohiko bileran, gehiengoz onartu zuen, jarraian transkribatu den Erakunde Adierazpena:

*"El Salvadorren legeak erabat murriztaileak dira abortuari eta emakumezkoen sexu eta ugaltze eskubideei dagokienez. Munduan legerik murriztaileenak dituzten sei herrialdeetako bat da.*

*Historiari eta errealitateari begiratzea aski da ikusteko El Salvadorren abortua erabat zigortuta egoteak ondorio larriak dituela emakumezkoen bizitzan; besteak beste, osasuna zaindu ahal izatea ukatzen zaie (batik bat, pobrezia egoeran bizi diren emakumezko gazteei), ugaltze eskubideak urratzen zaizkie, errugabetasun presuntzioa ukatzen zaie, etab.*

*2015ean, haurdun geratu zirenen % 30 neskatxak eta nerabeak ziren, 10 eta 19 urte bitartekoak; alegia, 25.132 neskatxa eta nerabe ama bihurtu ziren garai horretan. Horietatik 1.444 neskak 10 eta 14 urte bitartean baino ez zituzten, eta, beraz, haurdunaldi horien atzean, delituren bat zegoen.*

*2015. urtean, Polizia Nazional Zibilak batez beste sexu indarkeriako 5 kasu erregistratu zituen, eguneko, eta 2016ko urtarriletik abuztura bitartean, berriz, sexu indarkeriako salaketak egunean 11 izan ziren; % 78, neskatxei eta nerabeei eginak. Horietatik 1.560 kasu bortxaketak dira, eta horien % 80, neskatxei eta nerabeei eginak, gehien-gehienak*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 27 de junio de 2017, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

*"El Salvador es uno de los seis países del mundo con las leyes más restrictivas respecto al aborto, y a los derechos sexuales y reproductivos de las niñas y mujeres.*

*La historia y la realidad salvadoreña han demostrado que la penalización absoluta del aborto tiene graves consecuencias para la vida de las mujeres; entre ellas, la negación al acceso a la salud -sobre todo para mujeres jóvenes que viven en situación de pobreza-, violación de derechos reproductivos, perdida de la presunción de inocencia, etc.*

*El 30 % de embarazos en 2015 fueron de niñas y adolescentes entre 10 y 19 años, es decir 25.132 niñas y adolescentes se convirtieron en madres en este periodo. De estos casos, 1.444 fueron niñas de entre 10 y 14 años, lo cual es constitutivo de delito.*

*Para 2015 la Policia Nacional Civil registró un promedio de 5 casos cada día de violencia sexual y entre enero y agosto de 2016, se registraron 11 denuncias diarias por violencia sexual; el 78% en niñas y adolescentes. De ellas, 1.560 son violaciones, de las cuales el 80% corresponde a niñas y adolescentes, en su mayoría cometidas por familiares y/o*

IFK/CIF P2007400A / IEE/REI 01200697
6161N 97-06
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

*senideren batek eta/edo ezagunek.*

*conocidos.*

*El Salvadorko Osasun Ministerioaren esanetan, suizidioa da 10 eta 19 urte bitarteko neskatxa eta nerabeen heriotza eragiten duen bigarren kausa. Uste da suizidio gehienak sexu indarkeriarekin eta haurdunaldi derrigortuekin lotuta daudela. Neskatxentzat eta nerabeentzat, haurdun egotea bizia arriskuan jartzea da; amen heriotza tasa 4 aldiz handiagoa izaten da 16 urtetik beherako nerabeetan.*

*El Ministerio de Salud salvadoreño reporta que el suicidio es la segunda causa de muerte en niñas y adolescentes de 10 a 19 años. Se presume que en la mayoría de estos casos la causa está relacionada con la violencia sexual y embarazos impuestos. Para las niñas y adolescentes el embarazo pone en peligro su vida; el riesgo de muerte materna es 4 veces más alto en adolescentes menores de 16 años.*

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N 97-06
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

*El Salvadorren gaur egun indarrean dagoen legediak, haurdunaldia etetea erabat zigortzen duenez, juridikoki ziurtasun gabezia erabatekoan uzten ditu osasun zerbitzuetako langileak, medikuak nahiz erizainak, maiz askotan arrisku handiko haurdunaldi kasuak artatu behar izaten baitituzte, fetua umetokitik kanpo garatzen ari delako, bizirik irauteko inolako aukerarik gabe. Horrelakoetan, jardun medikoaren ikuspegitik haurdunaldia etetea da gomendagarriena, haurdun dagoen emakumezkoaren osasuna eta bizia arriskuan ez jartzeko; baina legediak hori egitea erabat zigortzen duenez, osasun langileek ezin jardun dezakete lasai, auzipetuko ote dituzten beldurrik gabe.*

*La actual legislación salvadoreña que penaliza totalmente la interrupción del embarazo provoca la inseguridad jurídica del personal de salud, médico y de enfermería, que atiende casos de embarazos de alto riesgo en los que el feto se desarrolla fuera del útero, sin posibilidades de supervivencia, en los que la práctica médica recomienda considerar la interrupción del embarazo para prevenir daños en la salud y vida de la mujer gestante, impidiendo que pueda actuar sin temor a un procesamiento judicial.*

*Hori guztia dela eta, El Salvadorko Alianza por la Salud y Vida de las Mujeres plataforma laguntza eske ari da, abortua baimentzeko lau kausak onartzearen alde agertzeko (haurdunaldiak emakumezkoaren osasuna edo bizia arriskuan jartzea, haurdunaldia ikuspegi medikotik bideragarria ez izatea, haurdunaldia bortxaketaren ondorio edo pertsonen salerosketaren ondorio izatea, eta haurdunaldia adingabeko bat bortxatu izanaren ondorio izatea), ikusita El Salvadorko estatua ez dela ari ezer egiten Nazio Batuen Erakundeko adituen gomendioei dagokienez, nahiz eta El Salvadorko gobernuari hertsatuki eskatzen dioten abortuari buruzko lege erabat murriztaileak indargabetu ditzala. Horregatik guztiagatik, Donostiako Udalbatzak KONPROMISO hau hartzen du:*

*Por todo ello, desde Alianza por la Salud y Vida de las Mujeres de El Salvador, solicitan apoyo a las cuatro causales para permitir el aborto (si el embarazo pone en peligro la salud o la vida de la mujer, cuando el embarazo es médicamente inviable, si el embarazo es causa de una violación o trata de personas, y ante un embarazo por causa de una violación a una menor) y ante la falta de acción por parte del Estado Salvadoreño en cuanto a las diversas recomendaciones de expertos de la Organización de Naciones Unidas que instan a El Salvador a derogar las leyes de aborto restrictivas, por doto ello el Ayuntamiento Pleno de San Sebastián, adopta el siguiente COMPROMISO:*

*KONPROMISO hau hartzen du:*

*-Donostiako Udalbatzak uste osoa du eta ontzat dauka 1134-10-2016-1 proposamena, El Salvadorren lau kausatan abortua despenaliza dezaten helburu duena, bidezkoa delako eta giza eskubideak aldarrikatzen dituelako, gehienbat El Salvadorko emakumezkoek osasunerako eta bizitzeko duten eskubidea.*

*-El Ayuntamiento Pleno de Donostia demuestra su convencimiento y reconocimiento a la propuesta Nº 1134-10-2016-1 que busca la despenalización del aborto por las cuatro causales en El Salvador, ya que es justa y reivindicativa para los derechos humanos, en especial a la salud y la vida de las mujeres salvadoreñas.*

*-Donostiako Udalbatzak El Salvadorko estatuari eta zehazki organo legegileari eskatzen die herrialdeko nesken eta emakumeen biziaren eta osasunaren aldeko legeak eman ditzatela".*

===========================

*-El Ayuntamiento Pleno de Donostia solicita al Estado Salvadoreño y al órgano legislativo en particular, que legisle a favor de la vida y la salud de las niñas y mujeres salvadoreñas".*

===========================

IFK/CIF P2007400A / TEE/REI 01200697
6161N 97-06

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2017ko ekainaren 30ean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 30 de junio de 2017.

**IDAZKARI NAGUSIA**
**EL SECRETARIO GENERAL:**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

**Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga**

**ALKATEAK O. E.**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

**Eneko Goia Laso**